



Pil-pilean

TRUKOLU

Soraluzeko hilaletokaria
2025eko urtarrila · 418 alea



KANPOKO KIROLARIAK SORALUZEKO KLUBETAN



PIL-PILEAN 418

2025eko urtarrila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|---|--|
| 4 | Elkarrizketa Monika Rodriguez
autobus gidaria | IRITZIA |
| 6 | Begira Harrizko armarría
herriarendako | 3 Neuretik David Lindenman
<i>Teknofeudalismoaren gorakada</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 14 Gutunak Iker Aldazabal (EAJ) EH
<i>Bilduk ezezkoa eman arren 29</i> |
| 12 | Plazan bazan Umeendako jolasak | <i>etxebizitza Pascual Churrucako</i> |
| 16 | Erreportajea Kirola egitera
Soraluzera | <i>eremuan</i> |
| 22 | Nondik nora Bogotatik Soraluzera | 14 Komiki tira |
| 24 | Gure artistak Maite Iñurrieta | 15 Hausnarketa Eskola kirola |
| 26 | Zerbitzuak Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak... | 15 Puntua Maite Garmendia <i>Zergatik ez?</i> |



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



**SORALUZKO
UDALA**

Teknofeudalismoaren gorakada: jaun digitalak eta demokraziaren erronka



DAVID LINDEMANN

Erdi Aroko sistema feudalean, jauntxoek aberastasun eta botere iturri nagusia kontrolatzen zuten: lurra. Haiek ez zuten ezer ekoizten; mendekoen errentaz bizi ziren. Gaur egun, feudalismo modu berria dugu, non oligarka milioidunek lurralde digitalak eta hodeiko azpiegiturak kontrolatzen dituzten, aro digitaleko aristokrazia berri gisa ezarriz. "Teknofeudalismo" (Varoufakis) horrek erronka paregabeak ditu gizarte demokratikoentzat eta norbanakoaren autonomiarentzat.

Bezoz, Zuckerberg eta Muskenak bezalako enpresen eskuetan aurrekaririk gabeko kapital eta eragin digitalen kontzentrazioa ikusten dugu. Jeff Bezosek kontrolatzen duen Amazon Web Services enpresak Interneteko hodeiko zerbitzu guztien herena hartzen du, eta, ondorioz, herritarrak (negozio kapitalistak barne) haren azpiegituraren mende gaude, Erdi Aroko jaunek nekazaritzalurretarako sarbidea kontrolatzen zuten antzera.

Mark Zuckerbergen Meta espazio sozial digitalen jabea da, non milaka milioik egunero elkarreragiten duten, datu pertsonal kopuru handiak bilduz eta diskurtso publikoa moldatuz, edukiak algoritmikoei kudeatuta, gardentasunik gabe. Konektibitate sozialaren eta informazio fluxuaren gaineko kontrol honek eragin handia du iritzi publikoan eta prozesu politikoetan, Zuckerberg jauna komunikazioaren atezain bihurtuz. Elon Muskek Twitter erosi izana ere botere-kontzentrazio horren adibide da.

Teknofeudalismoan erabiltzaileok jopu digital bihurtzen gara, errenta gisa gure dirua eta gure informazio pertsonala emanez. Ekintza kolektiboaren bidez burujabetza digitala aldarrikatzean datza irtenbidea. Estatuak azpiegitura digital publikoak eraiki eta mantentzeko inizatiba hartu beharko lukete, esaterako, estatu mailako hodei zerbitzuak, plataforma sozialak eta datuak biltegitzeko sistemak, interes publikoa irabaziaren gainetik lehenesten dutenak. Gobernuek, antza, ezer egiten ez dutenez, herritarrok antolatuta egin behar gara demokratikoki kontrolatutako alternatibak sortzeko, hala nola plataforma kooperatiboak eta sare deszentralizatuak. Azpiegitura digitalen jabetza publikoa ezarrita bakarrik atera gaitezke teknofeudalismoa. Teknologia balio demokratikoen zerbitzura egon behar du, haiek ahuldu beharrean.

EKINTZA KOLEKTIBOAREN BIDEZ BURUJABETZA DIGITALA ALDARRIKATZEAN DATZA IRTENBIDEA

David Lindemann kolaboratzaileak inteligentzia artifizialari eskatu dio kolaborazioa idazteko laguntza. Irakurgai dagoena da horren emaitza. Honako eskaera egin dio:

Testu labur bat (2100 karaktere) idatzi behar dut teknofeudalismoari buruz. Hau da, Jeff Bezosek, Elon Muskek, Mark Zuckerbergeki eta beste jaun digital batzueki nola kontzentratzen duten hodeiko kapitala eta horrek demokraziarentzat zer arrisku suposatzen duen azaldu behar dut. Horretan lagundu ahal didazu?

“Gidari eskaera handia dago eta berehala hasten zara lanean”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN TXURRUKA

Monika Rodriguezek (Soraluze, 1978) kamioiak eta autobusak gidatzeko baimena atera zuen 2019an eta 2020an hasi zen autobus gidari. Bergarako Cuadrabus urbanoan ibili zen 2021era arte. 2022an, berriz, Euskotrenen hasi zen eta hantxe segitzen du.

Zein ibilbide egiten duzu?

Orain Mallabia-Ondarroa. Baina Zumaia-Donostialdean ere ibili izan naiz.

Zergatik zara autobus gidari?

Aita kamioilaria izan da erretiratu arte. Ixa eta biok berarekin ibilitakoak gara Alemanian, Italian, Frantzian... Berak animatu ninduen.

Gidabaimena atera eta zuzenean hasi nintzen lanean, premia handia dago eta.

Baina autobus gidari zara eta ez kamioi gidari...

Bai. Kamioi gidariak ere behar dira, baina gehiago kanpora begira, nazioarterako. Umeekin hori ez da bateragarria.

Oraindik ere emakume gidari gutxi zarete, ezta?

Enpresan 1.200 bat langile gara, funikularrean, tranbian, autobusetan, bulegoetan eta tailerretan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. %20 bakarrik gara emakumeak. Gehien bulegoetan eta trenetan, gutxien, berriz, autobusetan eta tranbian, horretarako D gidabaimena behar baita.

Zerk zailtzen du emakume-gidari gehiago egotea?

Batik bat ordutegiek. Oso irregularrak dira, txanda oso luzeak eta aldakorak. Lan egin zenezake bi egunez goizez, bi egun atsedean eta hiru arratsaldez. Gainera, lankide batzuei barikuetan jakinarazten dizkiete hurrengo asteko ordutegiak. Horrek kontziliazio familiarra ia ezinezko bilakatzen du. Nik, berriz, lau urte daramatzat enpresan eta urte osoko egutegia ematen didate. Bestalde, genero estereotipoa ere badago. Ibilgailu astunak gidatzea aurrez ezarritako genero-rolekin lotu da, emakumeari lanbide horretan aritzera etsigarri bilakatuz. Azkenik, erreferentzia faltak ere eragiten du. Ez badugu emakume gidaririk ikusten, ez dugu lanbide hori aproposa ikusiko.

Zein zelan konpontzen zara gai horrekin? Lankideekin? Bezeroekin? Bestelako gidariekin?

Nire lankideekin beti ondo, edo hori uste dut, eurei galdetu behar. Bezeroekin... denetik dago. Gehienekin tratu adeitsua eta bakoitza berera. Dena den, orain gutxi, autobus artikulatua gidatzen nabilela, kotxeretan, gizon nagusi batek galdetu zidan ea nik eraman behar nuen. Nik baietz. Eta berak ea zelan den posible emakume batek, halako emakume txikiak halako autobus handia gidatzea. Esan nion ez nuela autobusa besoetan eraman behar, motorra eta erroberak zituela... antza, ez zitzaion gustatu erantzuna, hurrengo autobusaren zain geratu baitzen. Beste gidariekin, berriz, betikoa: autobusa ikusten badute ahaleginduko dira ahalik eta lasterren aurreratzen, autoak geltokietan aparkatuta egoten dira, ez dute pasatzen lagatzen, ezta geltokitik irteten ere nahiz eta geuk izan lehentasuna...

Tokatu izan zaizu gauze lan egitea?

Noski. Zapatuetan gaueko txanda izaten dugu. 22:00-07:00ak bitartean segurtasun zaindariarekin bidaiatzen dugu eta normalean ez da arazorik izaten. Baina 07:00etan bakarrik geratzen zara. Dena den, zaindaria izanda ere, arazoren bat gertatzen bada, tentsio une handiak sortzen dira, ahozko erasoak, autobusean apurketak... Niri ahozko erasoak tokatu izan zaizkit hainbat, baina nire lankideei ispilua, atea... apurto izan dizkiete. Behin, Mutrikuko jaietan, autobusaren aurrean jarri eta ez zioten irteten laga lankide bati.

Anekdotarik?

Asko. Orain gutxi bidaiari bat lo eraman nuen Ondarroatik Mallabira eta berriro Ondarroara. Haluzinatu egin zuen esnatu eta Ondarroan, lehengo leku berean, zegoela ikustean; galdetu zidan ea noiz abiatu behar ginen eta hiru ordu zeramatzan lo!

Gomendatuko zenuke autobus gidari izatea?

Noski, gidari eskaera handia dago eta, ondorioz, berehala hasten zara lanean. Gainera, oso lanbide atsegina da gidatzea, jendearekin tratua izatea gustuko baldin baduzu.



Harrizko armarria opari herriarendako

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA
ZANGITU

Miguel Criado Vicentek (Larrodrigo, Salamanca, 1950) udalerriko armarría eskuz zizelkatu du harrian, eta Soraluzekeo Udalarí emango dio opari. 2024an hasi eta bukatu zuen artelana. Bere esanetan, 150-200 bat ordu eman zituen harria lantzen, udaletxearen fatxadako armarríaren erreplika ahalik eta zehatzena egin nahian, Villamayorreko harri dotorea erabilia. Zintzel meheak, trintxak... eta pazientzia handia izan ditu lagun, "hemen ezin da akatsik egin; akatsen bat eginez gero, dena pikutara", esplikatu du. Soraluzekeo armarría zizelkatzen duen hirugarren aldia da. Egin zituen beste biek, bere esanetan, "akatsen bat" zuten. Oraingoarekin, berriz, gustura geratu da hargina. 2025ean, Criado harlanduen erakusketa jartzekoa da Bergaran, udaberrian edo udazkenean. Han, egin berri duen Soraluzekeo armarría ere erakutsi nahi du eta, ondoren, Udalarí oparituko dio.





Amatasunaz berba egiteko

OTSAILAREN 11N *M AMA* EME* UME** LIBURUAREN AURKEZTUKO DUTE

TESTUA: E. UNAMUNO (+GOIENA, BERRIA)

ARGAZKIA: ANBOTO

Otsailaren 11n, Emakumeen Ahalduntze Eskolak gonbidatuta, Erika Lagoma Pombarrek (Lesaka, 1981) eta Estitxu Fernandez Maritxalarrek (Lesaka, 1975) *M ama* eme* ume* liburua* aurkeztuko dute Tolarekua aretoan, arratsaldeko 18:30ean hasita. Ekitaldian, liburua aurkezteaz gain, solasaldirako tartea ere izango da.

Lagomak eta Fernandezek, Tene Mujika beka irabazi ostean, 2022an kaleratu zuten amatasunari eta amatasunei buruz diharduen liburua, gaiaz hausnartzeko eta esperientziak konpartitzeko sentitu zuten beharrari erantzunez. Liburuan amatasun eredu ezberdinen ahotsak batu dituzte, hamaika amari eta bi aitari jasotako testigantzen bidez: bikotedunak eta bikotegabeak, heterosexualak eta homosexualak, amabakarrak, adoptatzaileak, ama ez izatea erabakitakoak... Izan ere, egileek aldarri egiten dute ez dagoela amatasun bakar bat, ama bakoitza mundu bat dela eta, era berean, horietako bakoitzaren barruan hamaika mundu daudela.

Amatasun eta ama eredu ezberdinak

Erditu diren amak, erditu ez direnak, ama ez izatea aukeratu dutenak, ama bakarrak, banatu



Erika Lagoma Pombar eta Estitxu Fernandez Maritxalar. ANBOTO

diren amak, adopzio bidezkoak, amonak, etorkinak, edota ama lesbianak... Amatasuna bizitzeko modu asko daudela aldarrikatzen dute Lagomak eta Fernandezek, baita ama izateko ere.

Egileek azaldu dutenez, amatasunaren eta feminismoaren arteko harremana "gatazkatsua" izan da urteetan zehar, besteak beste, emakumeek batzuetan ama izateko derrigortasuna sentitu dutelako. Liburuan jaso dutenez, baina, "amatasunaren

instituzioak zapaltzen ditu emakumeak", eta "ezamatasunaren bizipenak berak".

Horiek eta beste hainbat ideia oinarri hartuta osatu dute liburua, uste dutelako mahai gainean jarri beharra dagoela "nolako amatasunak eraiki nahi ditugun". "Entzun dezagun kontatzeko duguna, eztabaidatu dezagun. Premiazkoa da eztabaidaz gain mugimendu bat sortzea, feminismoaren gainontzeko borrokei garrantzirik kendu gabe", adierazi dute.

Otsailaren 11ko aurkezpen-solasaldia Emakumeen Ahalduntze Eskolak pertsonen bizitzan eta eguneroko bizimoduan horrenbesteko garrantzia duen gaiaz elkarrekin berba egin eta hausnartzeko gonbita da.

**ERDITU DIRENAK,
ERDITU EZ DIRENAK,
AMA EZ IZATEA
AUKERATU DUTENAK,
AMA BAKARRAK...**



Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko
lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LALUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSEARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Nagusien Kontseilua sortzear

DATORREN ASTEAN AURKEZTUKO DUTE KONTSEILUA, PRENTSAURREKOAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

Soraluzeko Pertsona Nagusien Kontseilua sortzeko bidea lantzen dihardu Soraluzeko Udalak. Otsailaren 6an aurkeztuko dute egitasmoa publikoki. Aurreratu dutenez, kontseilu horren helburua udalerriko "pertsona nagusien beharrak eta proposamenak entzun eta aintzat hartzea da". Horretarako, "espazio parte-hartzaile eta inklusiboa sortuko da, non pertsona nagusiak euren ideiak eta kezak partekatu ahal izango dituzten". Iker Uzin Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak interesa duten herritar guztiak gonbidatu ditu aurkezpenera.

Bizipoz Kooperatibarekin

Soraluzeko Udalak Arrasateko Bizipoz Kooperatibarekin batera garatuko du Nagusien Kontseilua sortzeko prozesua. Bizipoz pertsona nagusientzako programak diseinatu eta garatzen dituen kooperatiba da, ongizatea eta zahartze aktiboa sustatzen dituena. Halaxe egiteko gidatu ditu Arrasaten, Zumarragan eta Oñatin, besteak beste, eta eredu horiek aintzat hartuta egingo dute Soraluzekoa, tokian tokiko ezaugarrietara eta eskaeretara egokituz. Halaxe adierazi du Uzin zinegotziak.

Nagusiak, elkarteak...

Hark emandako xehetasunen arabera, aurkezpen publikoaren



Nagusi bi kalean.

ondoren, Nagusien Kontseilua eratzeko elkarrizketak egingen hasiko dira Bizipoz Kooperatibako adituak. Horretarako, izen-emate epea zabalduko dute otsailaren 7tik 16ra. Gonbidatuko dituzte adineko pertsonak, haiekin lan egingen duten pertsonak eta eragileak; "adibidez, Itxaropena Erretiratuen Elkarteak, Mesedeetako egoitza, Eguneko Zentroa, Plaentxia Kantuan, Pentsiodunen Mugimendua, jendartEKIN...", esplikatu du Iker Uzinek.

%26

**DIRA 65 URTETIK
GORAKO ADINA DUTEN
SORALUZETARRAK**

Gaineratu duenez, "elkarrizketetatik Soraluzen nagusien egoerari buruzko informazioa aterako da, hutsuneak eta abar; hau da, egoeraren gaineko diagnostikoa egingo da eta hortik abiatuta martxan jarriko da kontseilua; hutsuneak alor askotan detekta daitezke: Hirigintza, gai sozialak, osasuna... Gero, horiei aurre egiteko proposamenak egin eta aztertuko dira".

Talde eragilea eratu ondoren, kontseiluaren hurrengo pausoak definituko dituzte, baina asmoa da 2025eko martxotik aurrera, hilero elkartzea.

Zahartze-indize altuagoa

Iker Uzinek gogora ekarri duenez, EH Bilduren hauteskunde programan jasota zuten nagusien esparrua saretuko lukeen gune bat sortzea eta "poliki-poliki ikusten joan gara beste herri batzuetako ereduak eta abar eta hortik iritsi gara Bizipozera eta eurekin batera orain martxan jarriko dugun prozesu honetara".

Datu modura, Soraluzeko bizilagunen laurdenak 65 urte baino gehiago ditu. Hain justu, abenduaren 31ko erroldaren arabera, soraluzetarren %26ak dauka 65 urte edo gehiago. Lurraldearekin konparaketa eginez, Soraluzeko zahartze-indizea Gipuzkoakoa baino bi puntu altuagoa da.

Bizilagun gehiago herrian

IAZTIK HONA 40 PERTSONA GEHIAGO ERROLDATU DIRA SORALUZEN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

GRAFIKOA: AZTIKER

Soraluzen, 2010etik 2020ra gertatu zen herrian erroldatutako bizilagunen azkeneko hazkundera, 3.941 bizilagun izatetik 3.974 bizilagun izatera pasatuta. Baina, ordutik aurrera, jaisten hasi eta 2020an beheranzko joera nabarmena hartu zuen. 2021ean, 178 alta izan ziren udalerrian eta 264 baja (-86). Besteak beste, urte horretan, 2021ean, 13 ume bakarrik jaio ziren Soraluzen. 2022an ere jaisten segitu zuen bizilagun kopuruak. 16 ume bakarrik jaio ziren eta urtearen amaieran, 3.753 bizilagun zeuden Soraluzen erroldatuta. 2022ko hori izan zen azken urteotako kopururik baxuena, harrezkero, gorako bidea hartu zuen eta 2023ko urte amaieran

3.818 bizilagun zeuden erroldatua udalerrian (+65), eta, urtebetera, 2024ko abenduaren 31n, 3.858 (+40).

Gizonezkoak gehixeago

Generoari dagokionez, 3.858 lagun horietatik gehixeago dira gizonezkoak. Soraluzeko Udalak emandako datuen arabera, 1.977 dira gizonezkoak (%51) eta 1.881 emakumezkoak (%49).

Zahartzen ari den herria

Bestalde, datuek diotenez, zahartzen ari den herria da Soraluze. 3.858 bizilagun horietatik 502 bakarrik dira 15 urtez azpikoak (%13) eta, aldiz, 1.005 bizilagun dira 65 urtetik gorakoak (%26).

Bestelako konparazioak eginda, Aztikerrek etxebizitzaren gainean Udalarentzat egindako


ikerketako datu demografikoen arabera, Soraluzeko zahartze indizea da 180,3koa da eta aldiz, Gipuzkoakoa da 164,6koa. 65 urtetik gorako bizilagun kopurua %22,7koa da Gipuzkoan, eta Soraluzen %26koa (+ 4 puntu).

Harrera herria

Herriko bizilagunen jatorriari dagokionez, berriz, Aztikerren datuen arabera, Soraluzeko bizilagunen %31 dira Euskal Herritik kanpo jaiotakoak eta horien artean, Espainiako Estatuan jaiotakoak dira %14,3 -kopuru hori jaitsi egin da 2004tik- eta munduko beste leku batean jaiotakoak dira %17,2. Azken datu horren kasuan, Gipuzkoako batez bestekoa %12,2koa da, Soraluzekoa baino bost puntu baxuagoa.

Biztanleriaren bilakaera Soraluzen (1900etik 2024ra)

ITURRIA: EUSTAT ETA SORALUZETIKO UDAL ERROLDA



Sukaldeko tresnen izenak ezagutzen al dituzu? Den-denak? Hona hemen horietariko batzuk. Lotu irudi bakoitzari bere izena.

- ELTZA
- BIRRINGAILUA
- LABANAK
- AZAL-KENTZEKOA
- ERRETILUA
- IRASAZKIA, TXANOA
- GATZONTZIA
- MIKROUHIN-LABEA
- ESTALKIA, TAPA
- ARRABOLA




- XLKADERA
- BURRUNTZALIA
- AMANTALA
- MOLDEAK
- ESKILARRUA
- ZUKUSAILUA
- KORTXO-KENTZEKOA
- IRABIAGAILUA
- BITSADERA
- ZARTASINA
- ESPATULA

Zein da zein



Hizki-Mizki

Eraman hizki bakoitza bere geziak seinatzen duen borobilerara eta tresna honen izena agertuko zaizu.



Itzala

Zein da orein jauzilari honi dagokion itzal zuzena?



DOMINOAN

Bide batzetz, margotu zure gustura.

Osatu lauki zuriak elurretako domino zati hau zuzena izan dadin.

Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barruan sartu nahian?

Bide batez, margotu.



Hara!

Besterena baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.

- TXORIBURU
- ZIRTOLARI
- XISKALARI
- EBASLE
- LITXARRERO
- HARRAPARI
- HIGUINGARRI
- ESKULUZE
- OHAIN

Engainagarriak

Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez datoz guztiz bat irudiarekin. Berezi itzazu.



Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.



Hamarrekoa

Aurkitu bi eskiatzaileen artean dauden aldeak. 10 dira guztira.

GUTUNAK

EH Bilduk ezezkoa eman arren, 29 etxebizitza eraikiko dira Pascual Churrucako eremuan

EAJ/PNV UDAL TALDEA

Soraluzeko udalak 2018an eskuratu zituen Pascual Churrucako eraikina eta alboko orubea, 404 euroren truke, subasta publikoan. Ondoren 2021. urtean Soraluzeko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten bertan babes ofizialeko 29 etxebizitza eraikitzeko. Jaurlaritzak etxebizitzak eraikitzeko 3,5 milioiko inbertsioa burutuko du. Etxebizitza hauetatik 4 udalaren esku geldituko dira Olaldeko eremua garatzen denean bertako etxebizitza jabeen ostatu emateko.

Bestalde, etxebizitza eraikin berriko beheko solairuan

200m²-ko lokala ere eskuratuko du udalak.

Proiektu honen bitartez herrian dagoen babes ofizialeko etxebizitza eskariari bide ematea nahi zaio. Gogorarazi nahi dugu, udalerrian azken etxebizitza sozialeko promozioa Saciako orubean egin zela 2006. urtean.

2023. urtean eraitsi zen Pascual Churrucako lantegia eta gaur egun, Jaurlaritza etxebizitza sozialen oinarritzko proiektua idazten dabil.

Abenduko Pil-pileaneko aldizkariko alean, herriko etxebizitzaren egoeraren inguruko, Unai Larreategi alkateari eginiko elkarrizketa irakurtzeko aukera izan genuen. Honela zioen alkateak “Martxan dago Pascual Churrucako 29 etxebizitzaren proiektua”.

Azpitarratzea nahiko genuke hau horrela dela, baina ez Larreategi jaunari esker, ezta berak ordezkatzeko duen Soraluzeko EHBILDUko udal taldeari esker ere ez.

Herritarrei jakinarazi nahi diegu, 2020ko uztailean burutu zen osoko bilkuran, Pascual Churrucako eremuan babes ofizialeko 29 etxebizitza eraikitzeko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza sailaren arteko hitzarmena eztabaidatu eta bozkatu zen.

Soraluzeko EHBILDUK hitzarmenaren AURKA bozkatu zuen. Hitzarmena, Udal gobernuaren osatzen genuen EAJ/PNV eta PSE-EEko udal taldeen ALDEKO bozkei esker, onartu zen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA

ME KA



HAUSNARKETA

Eskola kirola

Eskola kirolak derrigorrezkoa izan behar luke?



AITOR ATXOTEGI
GORPUTZ HEZIKETAKO
IRAKASLEA

"Derrigortasuna beti dago gaizki. Eskola kirola kirol minoritarioak probatzeko sortu zen, baina derrigortzen hasi zirenetik hanka sartu dute; guraso eta umeak kexatu egin dira eta arazoak sortu dira. Nire ustez ludikoagoa eta osagarria izan behar luke".



JONE ALBERDI
KIROL ZINEGOTZIA

"Eskola kirola prozesu hezitzailea da eta agian derrigortasunak ez dio mesederik egiten, baina umeak klub batean goizegi sartzeak eragozten dio beste kirol batzuk ezagutzea. Formula hausnartu beharko da, umearen ongizatea erdigunean jarrita".



ANJE ESKARZA
ESKOLA KIROLAREN
ARDURADUNA

"Derrigortasun hitza ez zait gustatzen, baina uste dut 6-12 urte bitartean eskola kirolera etorri behar dutela. Zergatik? Ikertuta dago kirol modalitate ezberdinak egiten dituztenek garapen psikomotrizitate ezberdina dutela besteekin alderatuz".



AINARA JUARISTI
KIROLARIA

"Nire ustez derrigorrezkoa izan behar luke. Gaur egun, indar handia duten kirolak dauzkagu eta umeek horiek praktikatzen amaitzen dute. Garrantzitsua iruditzen zait umeek kirol ezberdinak probatzea eta eskola kirolak esperimintatzeko aukera hori eskaintzen du".

PUNTUA



MAITE GARMENDIA

Zergatik ez?

Gaurkoan nire lagun bati gertatu zitzaion egoera bat azaltzera nator, eta nik uste herrian bati baino gehiago pasatu zaiola antzeko zerbait. Aurrekoan, herritik kanpo eskaintzen dizkiguten zerbitzueta bat eskatzera joan zen, etxeko janari zerbitzua hain zuzen ere. Bertara deitu, eskaria egin eta helbidea galdetu ziotenean, honek Soraluzen esan bezain pronto, erantzuna honako hau izan zen: *"itxita gaude"*. Hala eta guztiz ere, kuriositate hutsez, establezimendu horretara hurbiltzea erabaki zuenean, harriturik gelditu zen jateketa zabalik zegoela ikusita. Hori dela eta, bertan bizi den lagun bati galdetu eta egunean bertan zerbitzua eskatu zuela erantzun zion, arazorik gabe gainera.

Zenbat alditan gertatu zaigu Soraluzera zerbitzu horien eskaintza heltzea, buzoneo gisa, eta beraien zerbitzua eskatzea nahi dugunean ezezkoa jasotzea? Dena den, azpimarratu nahi dut herrian ditugun eskaintzak ez ditudala baztertzen, ezta gutxiesten ere. Betidanik eskatu ohi dugu (eta eskatzen jarraituko dugu) herriko taberna zein jateketa, baina, kanpotik eskaintza ezberdinak heltzen zaizkigunean, maiz, ez dute haien hitza betetzen. *"Soraluzera ez dugu eramaten"*, *"Soraluzera? Ez."* Zergatik?



Kirola egitera Soraluzeke klubetara

Gaur egun, sei kirol klub daude Soraluzen eta horri esker, ohiko kirolez gain, hain ohikoak ez diren beste kirol batzuk praktikatzeko aukera ere badago herrian. Arrazoi bategatik edo besteagatik, klub guztietan daude inguruko herrietatik etorritako kirolariak. Horietako batzuk ezagutu ditugu erreportaje honetan.

Testua eta argazkiak: **Ubane Madera Zangitu.**

Azken urteotan, kirolak loraldia bizi du Soraluzen, bai norbanakoen ohituretan eta zaletasunetan eta baita kirol klubean jardunean ere. Kluben kasuan, batik bat, 2015etik 2020ra bitartean izan zuten goraldia, klub berriak sortu baitziren herrian. Hala, ordura arte herrian tradizio luzea zuten Mendi Taldeari, Soraluze Futbol Taldeari, Pilota Elkarteari eta Ukaldi judo klubari -azken hori, 2019an desagertu zen-, beste hiru klub gehitu zitzaizkien: SoraGazteak Rugby Kluba, Marras Irristaketa Taldea eta SoraBox Boxeo Kluba. Bost urteko tarte horretan, herria sei kirol-klub izatera pasatu zen eta gainera, sortu berri ziren klubek hain ohikoak ez diren kirolak praktikatzeko aukera eskaini zuten: hockeya, errugbia eta boxeoa.

Kanpotarrak herriko klub guztietan

Ondorioz, orain Soraluzeke umeez eta gazteek lehen baino kirol eskaintza handiagoa dute herrian eta, azken urteotan, gero eta gehiago dira inguruko herrietatik Soraluzera datozen kirolariak ere. Hala, gaur egun, herriko kirol klub guztietan daude inguruko herrietatik etorritako kirolariak: Bergarakoak, Eibarkoak, Elgoibarkoak, Arrasatekoak, baita Legazpikoak edo Lasturkoak ere. Erreportaje honetan jaso dira horietako batzuen testigantzak eta kontaktu dute, besteak beste, nondik datozen, zergatik datozen eta zer den gehien baloratzen dutena Soraluzen.



Aiora Ballesteros eibartarra Araneko frontoian, entrenamenduaren aurretik.

"Eibarren ez dago patinetako kirol-klubik"

AIORA BALLESTEROS LERRO-HOCKEY JOKALARIA

Aiora Ballesterosek (Eibar, 2009) Marras Irristaketa Taldea sortu zenetik, 2019tik, dihardu Soraluzen.

Zelan irisi zinen lerro-hockeyra?

Behin, Debako paseoan patinatzen nengil. Aita ikusi nuen mutil batekin hitz egiten. Iraitz Ibarzabal zen. Hark gomendatu zion eta hockeyra apuntatu nintzen. Aitak esaten zidan zelan patinatu eta patinatzen ibiltzen nintzen.

Eibarren ez dago lerro-hockeyrako aukerarik?

Ez, ez dago patinetako kirolrik. Marrasi esker nabil lerro-hockeyan.

Esango zenuke orain lerro hockeya Eibarren ere gehiago ezagutzen dela?

Igual bai. Eta Kitton agertu nintzen sari bat hartzen eta hura ikusita, igual lerro-hockeyari buruz zerbait gehiago dakite. Baina nire lagunek ez dakite patinatzen, hori ez.

Zeuren zelan zabiltza Marrasen eta Soraluzen?

Soraluzetik autobuseko ibilbidea bakarrik ezagutzen dut. Taldekideekin, berriz, ondo. Harreman estua dugu.

Sei urte lerro-hockeyko jokalaria izaten; zer moduz?

Pozik. Gustuko dut, eta, horri esker Euskal Selektzioan ere egon naiz urtebetez.

Lerro-hockeya beste kirol batzuk baino sakrifikuagoa dela esan daiteke? (Azpiegiturak, ordutegiak...)

Bueno, hemen ondo gaude. Batzuek akaso kanpoan nahiago izango dute, baina gu ondo gaude. Hori bai, talde batzuen eta beste batzuen artean desberdintasun handiak daude maila aldetik. Entrenamenduak, akaso, apur bat berandu bukatzen ditugu, baina bestela ondo.

Kirol "txikia" izateak aukera gehiago ematen ditu?

Marras Kluba

Marras Irristaketa Taldea 2019an eratu zen. Bost mailatan ditu taldeak, benjaminak eta alebinak eta federazio mailan, infantilak, jubenilak eta emakumeak. Lehen lau kategoriak mistoak dira eta azkena emakumeena. Eibartik bi jokalaria datoz. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jokatzen dute eta noizbehinka baita Zaragozan ere.

Bai. Beste kirol batean igual ez nintzateke Euskal Selektzioarekin ibiliko.

Arreta ematen du ikusteak zenbat neskak diharduzuen.

Bai. Neska gehien dituen kluba da. Misto da lerro-hockeya eta ohikoagoa da berdintasun handiagoa izatea.

Zein litzateke zure helburua lerro-hockeyan?

Selektziora joatea nahikoa dela uste dut. Profesional izateko, adibidez, oso-oso ona izan behar zara. Hori ez zait burutik pasatu.

Eta Marrasen, noiz arte?

Marrasekin egongo naiz ekipoa desagertu arte edo ikasketekin presionatuegi sentitu arte.

Baduzu lerro-hockeyko ekipojokalaririk?

Harreman gehien Burdinolarekin -Bergara- baina partidetan denak ezagutzen ditugu, batez ere, selektzioan egiten ditugu lagunak.

"MISTOA DA LERRO-HOCKEYA ETA OHIKOAGO DA BERDINTASUN HANDIAGO EGOTEA"

"Soratik entrenatzaileak gustatzen zaizkit gehien"

AYOUB HMAMCHA SORAKO KADETEEN GORENGO MAILAKO AURRELARIA

Ayoub Hmamcha (Madril, 2009) 2019tik dabil Soraluze Futbol Taldean. Lehen Soraluzen bizi zen eta orain, Oñatitik etortzen da autobusean, "lagunengatik". Kadeteen gorengo mailan jokatzen du aurrelari modura. Soran, Lamine Yamal esaten diote batzuetan.

Zelan hasi zinen futbolean eta noiz hasi zinen Soran?

Futbola aitak erakutsi zidan eta gero lagunekin jolasten nuen beti futbolean. 8 urterekin etorri nintzen Soraluzera eta 9 urte eta erdirekin hasi nintzen Soran.

Orain Oñatin bizi zara, baina hala ere, Soran jarraitzen duzu; zergatik?

Bai, lagunengatik.

Oñatitik Soraluzerako joan-etorria ez da batere erraza.

Ez. Klasetik 16:30ean irten eta 15 minutuan kilometro eta erdi egin behar dut etxera joan, eskolako motxila laga, futbolekoa hartu eta autobusa hartzeko. 20 minutu busean San Prudentziara, 20 minutu itxaron eta beste autobus batean, ordu erdi Soraluzera. Bueltarako, asteartean 20:00etan joaten naiz, ostegunean 20:30ean edo 21:00etan eta barikuetan lagunekin geratu eta 22:00etan.

Ez da errazagoa Oñatiko Aloña Mendin jokatzea?

Datorren urtean zu fitxatzea nahiko balute...

Lagunak badituz han, ligan bigarren doaz eta gu 12., baina ez dut gura, ez nintzateke joango.

Sora Futbol Taldetik zer duzu gustukoena?

Taldeko giroa eta entrenatzaileak. Asko laguntzen dute hobetzen,



Ayoub Hmamcha Ezoziko Futbol Zelaian.

jokatzeko minutu asko ematen dituzte, konfiantza, eta, akatsen bat eginez gero animatu egiten dute. Benjaminetatik kadeteetara Victor Perez izan nuen entrenatzaile eta kadeteetan Aitor Gomez Tita eta Aitor Barrutia.

Eta Soraluzetik zer gustatzen zaizu gehien?

Pertsonak. Ez jatorrak dira beste herri batzuekin konparatuta. Adibidez, Oñatiko lagun bat Sorara jokatzerako etorri zenean, zelaira igotzen lagundu zioten.

"SORALUZETIKO PERTSONAK JATORRAGOAK DIRA BESTE HERRI BATZUETAKOekin KONPARATUTA"

Aldiz, beste lagun bat Mondrara jokatzerako joan zen eta ez zioten horrelako kasurik egin.

Futbolarekin zer nahiko zenuke lortu?

Denok nahi dugu profesional izan. Zaila da, baina ametsa beti dago hor.

Zein da erreferentziatzko ekipoa? Eta jokalaria?

Gure ligan Oñatiko Aloña Mendi, ondo jokatzen du. Lehen mailan, Barça. Jokalarietan, Robert Lewandowski dut gustukoena, nire posizioan jokatzen duelako; eta, Aitor Barrutia, berak beti erakutsi egiten dizulako Soran jokatzeko modua eta horrekin batera, asko laguntzen duelako.

Futbol ligarik gustukoena?

Orain La Liga. Lehen hobea zen Premier League, baina orain ez.

Ikasketetan-eta aurrera egin ahala Soran jarraituko duzu?

Askok ikasten dut. Datorren urtean, espero dut batxira joatea eta orduan oraingoa baino ordutegi hobea izango dut Soraluzera etortzeko.

Soraluze Futbol Taldea

1977an eratu zen gaur egungo Soraluze Futbol Taldea. Baina futbolak oso tradizio luzea dauka herrian. Horren erakusle, 1910ean Placencia Foot-ball Club taldea sortu zuten. Sorari dagokionez, indartsu dago. Gaur egun 178 kide ditu Erregional Mailatik hasi eta Futbol Eskolaraino. Horietatik 22 kanpotik etortzen dira, gehien Erregional mailara.

"Bergaran ez zegoen neskarik, hemen bai eta etorri egin nintzen"

MADDI GABILONDO SORALUZE PILKOTA ELKARTEKO PILOTARIA

Maddi Gabilondok (Bergara, 2010) hiru urte daramatza Soralezeko Pilota Elkartean. Txikitatik dihardu pilotan. Zortzi urte zituela hasi zen. Pilotari-familiatik dator neska gaztea.

Bergaran pilota elkarteak egonda, zer dela-eta diharduzu Soraluzen?

Bergaran ni nintzen neska bakarra. Behin proposatu zidaten partida bat jokatzera etortzea hemengo jaietara eta gero proposatu zidaten entrenamendu batzuk probatzera etortzea eta zelan Bergaran orduan ez zegoen neskarik eta hemen bi, ba etorri eta geratu egin nintzen. Lehen lau neska geunden, orain hiru gaude.

Neska izanda mutilekin entrenatzen eta jokatzeko duzue... Ondo moldatzen zara?

Txikitatik izan da horrela, zeren pilotan oso neska gutxi gaude. Niregatik, ondo, normal.

Hala ere, ez zenuke nahiago bakarrik neskekin jardutea, batez ere, orain neskek espazio handiagoa hartzen ari direla ikusita?

Akaso probatu nahiko nuke, gure artean konfiantza gehiago dugulako-eta, baina azkenean ez da egon aukerarik, oso neska gutxi gaude eta.

Plazentzian zelan moldatzen zara? Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Hemen ondo. Gehien gustatzen zaidana da dagoen giroa eta jendea oso jatorra dela, eta gutxien, etxetik pixka bat urrun daukatela.

Ez zara bergarar bakarra Soraluzera kirola egitera datorrena, ezta?

Ezagutzen dut jendea beste kirol batzuk praktikatzera etortzen dena Soraluzera, hockeyra eta futbolera.



Maddi Gabilondo Araneko frontoian.

Pilotara, behintzat, kanpotar asko dator; izen ona dauka hemengo klubak?

Uste dut Aitor Atxotegik fama ona izango duela, esperientzia handia duelako. Entrenatzaile ona da, esperientzia du eta igartzen zaio.

"AITOR ATXOTEGI ENTRENATZAILE ONA DA, ESPERIENTZIA DAUKA ETA IGARTZEN ZAIO"

Zer nahiko zenuke lortu pilotarekin?

Oraingoz hobby bezala daukat eta ez daukat asmorik oso urrun ailegatzeko. Kirola disfrutatu. Oraingoz, hobby moduan, gero ikusiko dut.

Zelan ikusten duzue aurtengo denboraldia?

Oraindik ez dut asko jokatu baina oraingoz, ondo.

Zuri zeinek sartu zizun pilotaren zaletasuna?

Anaia Paulok jokatzeko zuten eta Ramon aitaitak ere bai. Txapeldun ere izan zen hemen, Soraluzen.

Zein da zuretzat erreferentea?

Batetik, familia eta bestetik, txikitatik ikusi izan dut Rezusta Bergaran, eta hura ere bai.

Bergarako neskek zein kirol praktikatzeko dute, batez ere?

Saskibaloia, futbola... pilota ere bai, baina ez dago nire adinekorik.

Soraluze Pilota Elkarteak

Soraluze Pilota Eskola 1995ean sortu zuten. Hortik dator gaur egungo Soralezeko Pilota Elkarteak. 42 pilotari ditu, horietatik 8 kanpotik datoz -Bergara, Deba, Lastur eta Antzuola-. Pilotak tradizio luzea du herrian. 1830ean eraiki zuten lehen frontoia eta joan den mende hasieran ya baziren herrian izen handiko pilotariak.



Unai Sanchez SoraGazteak Rugby Klubeko jokalaria.

"Elgoibarko lau lagunek entrenatzen dugu hemen"

UNAI SANCHEZ SORAGAZTEAK RUGBY KLUBEKO JOKALARIA

Unai Sanchez (Elgoibar, 2013) 2021etik dabil errugbian. Eibarko Rugby Taldean hasi zen kirol hori praktikatzen. Baina SoraGazteak Rugby Kluba sortu bezain laster Soraluzeko taldearekin hasi zen entrenatzen eta jokatzeko. 2022tik dihardu hemen.

Zelan animatu zinen errugbira?

Niri uda batean lagun batzuk gomendatu zidaten errugbia probatzeko. Orduan ez nuen kirolik egiten eta errugbian hasteko proposatu zidaten. Eibarkoak ziren, probatzera joan nintzen eta gelditu egin nintzen. Han lagunak egin nituen: Aimar, Unax eta Enekoitz. Urtebete egon nintzen han.

Baina ez zenuen Eibar Rugby Taldean segitu; ez zizuten horretarako aukerarik eman?

Bai, ahalko nuke segi Eibarren, baina nahiago nuen Soraluzera etorri, hemen lagun gehiago ditudalako.

Elgoibarren ez duzue errugbi klubik eta ezta praktikatzeko aukerarik ere, ezta?

Elgoibarren ez dago errugbirik, ez. **Horregatik akaso SoraGazteak Rugby Klubean ez zara elgoibartar bakarra izango...** Ni lagun batekin etorri nintzen, Asier Orge. Eta Elgoibarko beste bi lagunek ere gustuko dute errugbia eta hona etorri dira. Beste batzuk ere badaude probatzera etortzekotan dabiltzanak, Elgoibarko lau gaude hemen entrenatzen.

Beraz, esango zenuke Elgoibarren orain errugbia ezagunagoa dela SoraGazteak Klubari esker?

Bai. Uste dut pixka bat ezagunagoa dela.

Zelan ikusten duzu zure burua Soraluzeko talde batean?

Soraluzen ondo eta SoraGazteak Klubean ere ondo ikusten dut nire burua.

Zen posiziotan jokatzeko duzu?

SoraGazteak Rugby

2019an, Soraluzen errugbia ezagutarazi eta modu egonkor eta etengabean praktikatzeko aukera eskaini nahian, guraso talde bat errugbi entrenamenduak eta erakustaldiak egiten hasi zen. Gaur egun, hori guztia SoraGazteak Rugby Taldean egituratu da. Euren kabuz zein Debarroa ekipoa parte hartuz jarduten dute errugbian. Gaur egun, 17 errugbilarik osatzen dute taldea, 6 dira kanpokoak.

Momentuz ez daukat jokorako posiziorik baina esan didate 14 urtez azpiko taldean *pilier* izango naizela.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Elkarren artean dugun konfiantza eta giroa.

Entrenatzera joan-etorriekin eta, zelan?

Ondo moldatzen gara. Gustura gaude hemen.

Errugbian noraino nahiko zenuke iritsi? Akaso izena eta ibilbide luzea daukan Eibar Rugbyra bueltatu nahiko zenuke?

Ez, nik Frantziako talde onenean, Aviron Bayonnais taldean jokatu nahiko nuke. Telebistan ikusi izan ditut haien partidak.

Profesional modura?

Bai, profesional izan nahiko nuke.

"GEHIEN GUSTATZEN Z Aidana da ELKARREN ARTEAN DUGUN KONFIANTZA ETA GIROA"

"Probatu dudan kirolik konplikatuena da"

AITZOL OVEJERO SORABOXEKO BOXEOLARIA

Aitzol Ovejero (Arrasate, 2008) SoraBox Klubeko boxeolaria da. Bi urte daramatza boxeoa. Ezekiel lagunak erakutsi zion kirola; "barruak husteko" on egiten ziola-eta, asko gustatu eta hortxe segitzen du.

Arrasatetik Soraboxera, zergatik?

Lehen Santiago Galan Espainiako txapeldun izandakoak entrenatzen duen klubean nengoen. Urtebetez egon nintzen berarekin. Hari ez zaio jendea konpetitzera ateratzea gustatzen. Erabaki nuen Soraluzera aldatzea hemen bai ateratzen dutelako konpetitzera.

Justu martxoaren 7an debutatuko duzu; zelan zaude?

Ondo, apur bat urduri baina gogotsu.

Ez dizu beldurrik ematen zure herrian debutatzeak?

Zerbait bai, baina hobe nire herrian inor ezagutzen ez dudan leku batean baino. Lagunak, senideak... etorriko dira ikustera.

Arrasaten boxeok badu tradizioa, baina zenbateraino piztu da Ixari esker?

Han entrenatzen ari dira baina bakarrik modu errekreatiboan. Ekitaldiak-eta Ixa hasi zen egiten. Martxoaren 7koa izango da hirugarren urtea.

Zelan ikusten duzu zure burua boxeoa?

Ondo, baina beti dago zerbait hobetzeko. Diziplina handia behar da. Nik uste dut probatu dudan kirolik konplikatuena dela. Umetan ez nuen espero boxeoa bukatuko nuenik.

Eta Soraboxen, zer moduz?

Oso ondo. Ixak oso ondo zaintzen nau, ama bailitzan (barre); oso jatorra da; asko arduratzen da gu



Aitzol Ovejero Araneko aretoan entrenatzen.

guztiotaz eta oso entrenatzaile ona da. Guztion artean ondo konpontzen gara eta gogor entrenatzen dugu.

Zer gustatuko litzaizuke lortzea boxeorekin?

Lehenengo nahi dut jakin noraino ailegatu naitekeen orain egiten dudanarekin, borroka probatu eta ea zelan moldatzen naizen.

Sparring-a egiten dugu hemen, konbateen antzerakoa da. Dena den, beti nahi izango dut profesionala edo txapelduna izan.

Nolako maila ikusten duzu hemen?

Nahiko ona. SoraBoxen borrokalaria oso onak daude, adibidez, Korta. Orain gutxi hemen dabilen nire lagun Jokin Merinok borrokatu zuen, hura ere oso ona.

Zuk zein duzu erreferente?

Badago boxeolari bat oso gustuko dudana bere diziplinarengatik, bere konbate motarengatik... Canelo Alvarez

"IXA ASKO ARDURATZEN DA GU GUZTIONGAIK ETA OSO ENTRENATZAILE ONA DA"

mexikarra. Denbora luzean izan da munduko txapelduna. Dena dut gustuko berarengandik.

Beste ezer esaterik nahi baduzu...

Emozionatuta nagoela nire konbatarengatik eta gogor entrenatuko dudala.

SoraBox kluba

2014an sortu zen boxeoa bultzatzeko SoraBox promotorea, Ixa Rodriguez soraluzetarraren eskutik.

Gipuzkoako lehen boxeolari profesionala izan zen Rodriguez 2018an, 36 urterekin.

SoraBox Soraluzen hasi bazen ere, gaur egun, Ermuan eta Arrasaten ere baditu boxeoko eskolak.

Herrian kanpotar gehien dituen kluba da SoraBox.

Boxeo-eskolak izateaz aparte, boxeoko ikustaldiak ere antolatzen ditu Ixa Rodriguezek Gipuzkoan eta Bizkaian.

"Bizitzak ekarri gintuen hona"

CAMILO LOPEZ ETA VANESA OROZCO BOGOTATIK SORALUZERA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: VANESA ETA CAMILO

Soraluzera "bizitzak ekarri" zituela diote Camilo Lopezek (Bogota, 1996) eta Vanesa Orozcok (Santuario, 1997, Bogotan hazita). 2022tik bizi dira hemen, baina berez, Valladoliden bizitzeko plana zuten Europara etorri zirenean.

Zelan amaitu zenuten Soraluzen?

Valladolidera iritsi ginen.

Internetez gela bat topatu genuen errentan. Hilabetez egon ginen han. Baina

Valladoliden, Polizia

Nazionalak ez zuen hitzordurik. Esan ziguten Euskal Herrian

-Donostian eta Gasteizen-

bazituztela hitzorduak eta

Donostiara joan ginen.

Ezusteko ederra izan genuen,

bizitzak lekurik onenean ipini

nahi gintuen.

Dena den, Donostia eta Soraluze ez

dira gauza bera...

Zerbait errentan hartzeko bila

ibili ginen eta Soraluze oso

ekonomikoa zen. Guretzat

Donostiatik oso gertu zegoen,

40-45 bat minutura. Pentsa,

Bogota alderik alde

gurutzatzeko bi ordu behar

dituzu, han ez baitago metrorik.

Soraluze, berriz, guztiaren

erdi-erdian dago, kokaleku ezin

hobean.

Soraluzera iritsi eta zer inpresio?

V: Ikusi nuen lehena mendia

eta berdetasuna izan zen. Ez

nuen espero. Bogota oso



V. Orozco eta C. Lopez danborradan.

menditsua da eta Soraluzek mendiarekin lotzen nau, jaioterriarekin.

C: Gauzez iritsi eta hurrengo egunean hasi ginen herria ezagutzen. Gabolatsetik kiroldegiko pasealekura joan ginen. Oso kirolzaleak gara eta kiroldegia ikusi genuen. Sartu eta gimnasioraino iritsi nintzen.

Irten eta kanpoko paisaia

ikusita bideoa egin nuen,

Batzokia, ibaia... ederra! Gero,

kalez kale ibili ginen, kale gutxi

zituela ikusi genuen. Baina

oraindik Soraluze ezagutzen ari

gara. Urte bukaeran ezagutu

genituen Irukurutzetarako

bidezidorrak, kale berriak...

Oso gustura gaude hemen.

Noiz iritsi zineten?

C. Azaroan. Bogotan urte osoan

egiten du hemengo azarokoa

bezalako eguraldia; ni prak-

motzetan ibiltzen nintzen, han

bezala. Jendeak esaten zuen: *hau iparraldekoa da*. Etorri eta hilabetera ezagutu genuen bidegorria. Ordura arte, mendira joaten ginen.

Karakatera lehen aldiz igotzea bost ordu kostatu zitzaigun, baina izugarri polita da.

V: Gaztañerren iritsi ginen. Ez genuen ezer ulertzen. Hemengo

kultura testuinguru barik

ikusten ari ginen. Gero

testuingurua ulertzen joan gara.

Elkarren artean, berriz, zelan ezagutu zineten?

Sare sozialen bitartez.

Argazkiak ateratzen ditugu.

Instagramen hasi ginen

argazkiei buruz berbetan.

Vanesak kamera profesionala

zuen eta erakusten hasi

zitzaidan. Liburutegira joan eta

horrela hasi ginen. Berak

argazkilaritza erakusten zidan,

nik kirola. Bera kazetaria da

ikasketez eta ni prestatzaile

fisikoa -hemengo IVEF-.

Oso gazte migratu duzue...

C: Gazte izatea da arrazoietakoa

bat. Energia behar da

migratzeko. Bestalde, han

genituen sustraiak oraindik ez

ziren horren sakonak eta bizitza

kalitatearengatik ere etorri

ginen, ekonomiarengatik.

Oraindik bidea egiten ari gara,

baina orain artekoak merezi du.

V: Kanean lasai egotea, gauzez


ere bai, telefonoz berba egin

ahal izatea inork lapurtu gabe,

lanean ordutegi finkoak izatea,



Vanesa Orozco eta Camilo Lopez kiroldegiko pasealekuan.



Lagunekin Guatapen, Antiokia.

autobus zerbitzua... Zuentzat oinarrizkoak direnak eta inkluso horren ondo ez daudenak -autobusak- guretzat luxua dira.

Soraluzez aparte, ingurua ere ezagutzen duzue, ezta?

C: Euskadi osoa ezagutzeko erronka dugu. Gipuzkoako kostalde osoa ezagutzen dugu, Bizkaia gutxiago, baina ari gara; Arabarekin dugu zorrik handiena, garraio publikoko konexio gutxiago dagoelako. Soraluzen bizi gara, baina bizimodua Euskadi osoan egiten dugu.


V: Euskadi bi modutara ari gara ezagutzen. Batetik egunean bertan pentsatzen dugu nora joan, autobusak begiratu, bokadiloak prestatu eta hara joaten gara egun-pasa. Bestetik, Euskadin astero daude, gutxienez, bi leku

lasterketekin. Haietara joaten gara. Turismoa egiteko oso modu dibertigarria da.

Korrikalariak euskaraz hitz egiten digute eta ikasi ditugu hitz batzuk. Lasterketarik arraroena Urrestillakoa izan zen, oso-oso euskalduna.

Oso integratuta zaudetela dirudi, gimnasioan, Alberto Ramirezen galerian, Edurtzan lanean...

Herriak oso ondo hartu gaitu. Ahalegintzen gara ekimen kulturaletan parte hartzen eta adinekoekin egotea oso gustuko dugu. Bogotan adinekoenek 40-50 urte dituzte. Hemen adinekoekin hitz egiten dugu lagun modura, bizi-aholkuak ematen dizkigute... Herria gustuko dugu, pertenezia sentimendu handia dago, mendiak, gastronomia... Itsasoa Deban ezagutu nuen nik -Camilo-. Etorkizunerako nahiko gence integrazio laborala, ondo legoke kontratua eta egonkortasuna. Lan egin eta gure zaletasunak -kirola, argazkilaritza...- izaten lagako diguna. Baina prozesu bat da eta denbora behar du. Bidean, agobiatu barik, etorkizunean batzeko ereiten ari gara.



Bikotea Donostian.



Bogotan, lasterketa batean.

"KALEAN LASAI EGOTEA, GAUEZ ERE BAI, LANEAN ORDUTEGI FINKOAK... LUXUA DIRA GURETZAT"

Hondartzan jasotako kristalekin, artelanak

MAITE IÑURRIETA ARTISAUJA

TESTUA: ANDER GOMEZ

IRUDIAK: UBANE MADERA, MAITE IÑURRIETA

Urteak zeramatzan Maite Iñurrieta Labaienek (Soraluze, 1961) kristalekin artisautza lanak egiten eta iazko ekainean eman zuen azoketarako saltoa. Harrezkero, Gaztañerreko eta Gabonetako artisauen azoketan izan da, baita Arrasateko Santamasetakoan ere.

Kristala da zure artisaу-lanetako elementu nagusia. Zergatik?

Nire afizioetako bat da hondartzara noanean kristalak jasotzea. Beti lurrera begira noa, ea zer topatuko dudan.

Toki bereziren batera joaten zara bila? Urrutira?

Ez dauka zertan, Ondarbeltzen bertan (Deban) kristalak topatzen dira. Gaur egun gutxiago, agian jendeak birziklatzeko kontzientzia handiagoa daukalako. Orain dela urte batzuk askoz gehiago zeuden eta handiagoak.

Noiz bihurtu zen kristalak batzeko afizio hori artisaуta afizio/ofizio?

Ba kristal mordoa neuzkan etxean, eta zerbait egitea erabaki nuen. Lehenengo hasi nintzen lepokoak egiten, gehienak oparitzeko, baina gutxi batzuk saldu ere egin nituen. Gerora, interneten ikusi nuen jendeak koadroak egiten zituela, horrek atentzioa eman

zidan eta mundu horretan sartu nintzen.

Kristalez gain, makiltxoekin eta tela zatiekin egindako koadro horietan natura, kantuen letrak, partitura zatiak... aurki daitezke.

Bai, baina guztiak elementu beraren inguruan: txoriak. Txoriak dira beti abiapuntua. Natura, paisaiak, zuhaitzak... txoriaren bititoki bezala daude eta doinu horiek txorien kantu bezala irudikatzen ditut.

Koadroez aparte zer egiten duzu?

Kandela euskarriak egiten ditut birziklatutako poteak hartuta eta kristalekin, alanbreekin eta bestelako apaingarriekin dekoratuta. Koadernotxoak ere egiten ditut, teknika japoniarrarekin jositakoak. Horren berezitasuna da azaletik zein kontrazaletik patroï berbera izan behar dutela eta patroien diseinu desberdinak daudela, bakoitza bere izen propioarekin.

Gero, saltzerako orduan, neuk egindako poltsetan entregatzen

"KRISTAL, EGUR ETA TELA ZATIEKIN EGITEN DITUDAN KOADROETAN TXORIAK DITUT INSPIRAZIO NAGUSI"

ditut lan hauek. Birziklatutako aldizkariekin egindako poltsak dira, gehienetan *Mondo Sonoro* musika aldizkariaren aleekin.

Artelana beste artelan baten barruan doa orduan.

Bai, bueno. Alde batetik plastikozko poltsa batean ez ematearren... baina gehien bat halakoak egitea gustatzen zaidalako. Denbora-pasa polita da.

Gero, honi lotuta adibidez, telaz forratutako kaxak eraman nituen azken azoketara. Askok bertan erosi ez baina Gabonak aldera akordatu eta etxera etorri zitzaizkidan: "Zu, Maite, badauzkazu kaxa haiek oraindik...?", eta opariak gordetzeko erabili zituzten. Hori da azoken alderik onena: egunean bertan baino, gerora etortzen diren enkargu guztiak.

laz hasi eta urte erdian lau azokatan egonda martxa hartua duzula dirudi. Noiz hurrengoa?


Ba momentuz ez dago hurrengorik, frenoа jarrita daukat. Azoka baterako prestatzeak denbora asko eskatzen du, eta ia genero guztia salduta eta apenas denbora libre barik... zaila da. Baina nork daki, agian hemendik bi hilabetera hortxe izango naiz, plazako postuen artean lan berriak saltzen.



Maite Iñurrieta Gaztañerre azokan estreinakoz, 2024an. UBANE MADERA ZANGITU



Kandela poteak. MAITE IÑURRIETA



Telazko koadernoak. M. IÑURRIETA



Pertsonalizatutako enkargua. M. IÑURRIETA

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Urko Lazpita Ormaetxea
Urtarrilaren 19an 3 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



Dihan Gallastegi Nogales
Urtarrilaren 21ean 6 urte. Zorionak txapeladun! Etxekuen partez, bereziki Laian partez. Askok maitxe zaitxugu.



Ekain Arana Lobato
Urtarrilaren 21ean 5 urte. Zorionak bitxito! Ilargiraino ta bueltan maite zaitugu! Aita, ama, Markel eta estu!



Cristina Laskurain
Otsailaren 14an. Zorionak! Ondo pasau eguna etxeko guztien partez.



Enara Agirre
Urtarrilaren 10ean 42 urte. Zorionak Enara!!!



Amaia Agirre
Urtarrilaren 22an 50 urte. Zorionak Amaia!!!



Unai Agirre
Otsailaren 7an 16 urte. Zorionak Unai!!!

JAIOBERRIAK



Ainara Arias Nieto
Urtarrilaren 11n jaio zen.



Shaila Cortes Cortes
Urtarrilaren 1ean jaio zen.
2025ean Mendaron jaio zen lehen umea izan da.




HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

María Dolores Garate Uzentabarrenetxea
Felisindo Tesouro Gonzalez
Josefa Teijido Otero
Maria Cristina Sologaitza Gallastegi

Jaiotakoak

Elaia Zarobe Nauro
Sultan Safine El Kadiri
Shaila Cortes Cortes
Ainara Arias Nieto

 <p>Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas Escuela Pública Administrativa de San Bartolome</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean obra batzuk egin dira, eta dirulaguntza jaso dugu horretarako. Obra hori egiteko dirua, baina, etxejabeok aurreratu genuen. Orain, dirulaguntza iritsi zaigunean, aurreratu genuen diru hori banatzea erabaki dugu. Tarte horretan, baina, dirua jarri zuen etxejabeetako batek etxebizitza saldu du, eta jakin nahiko nuke diru hori nori eman behar diogun: etxejabe horri ala etxejabe berriari.</p> <p>Komunitateko kontuan sartzen dugun dirua, izan dirulaguntza bat edo izan geuk aurreratu dugun dirua, komunitatearena da, eta diru hori etxejabeen artean banatzeko jabe-kideen batzarraren onespena behar da ezinbestean. Beraz, obra hori egin ezean ere inork ez du eskubiderik bere kabuz dirua itzuli diezaioten eskatzeko. Kasu horretan ere dirua komunitatearena izango da, eta jabeekideek eurek erabaki beharko dute diru hori banatu edo beste zerbaitetan inbertituko duten. Beraz, une horretan etxejabea denak du bete-beharra ordaindu beharreko kuotak ordaintzeko eta onurak ere berak jasoko ditu. Etxea erosten den unean bertan jasotzen ditu etxejabe berriak eskubideak eta betebeharrak.</p> <p>AHOLKUA: izatekoan ere, dirua aurreratu zuen etxejabe horrek etxejabe berriaren kontra egin dezake eta aurreratu zuen dirua itzultzeko eskatu, baina, kasu horretan, komunitatea ez da ezerean erantzule izango, komunitateak dirua etxejabe berriari eman behar diolako.</p> <p> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Ettxeko fritokak
Soufflea

Tel.: 943 75 10 02



ODRI

ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsianak, ateak, barandiak, salmenta eta korporaketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bager Etxeko Kalea 2 - 20200 SORALUZE
e-mail: odrilhoiak@gmail.com

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:00
Larunbata: 08:30-13:00
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, premsa, pastak, borbotak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



Almar

Beapaindegia
Estetika
Solortzama

Gabriel 4. beheko Tel.: 943 75 13 13 - 642 31 34 94



BOLIA

BARBERIA

Pirrok, arzak, korbitzak
Gazte-giroko festa



Belarrak

lana eta bihurtzea

Elkagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santa Ana 22
943 75 30 11



Criado

Fruitategia Urdategia

- Erakargariek Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00

943 918 536



KM design

Kiru Munduak

943 76 09 85

kmmunduak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3
BERGARA

- Diseinuetako Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ornatuak
- Logelak
- Zonak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

ELIZPE

HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punte puntuko teknologian lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
Mug.: 747 42 75 19
e-mail: elizpe@elizpe.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 16:00-20:00



IZZGUIRRE

Igeltzeritza

Erakiri berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913




Kontugest

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontugest.com

MENDIZABAL

okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbata eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Txoko

Eguneko menua,
plater kombinatuak,
hamburgerak,
ogitarikak,
nabakak,
piztiak,
grosaria...

Erakargariek egiten dira
Tel. 943 75 17 08



SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38



Euskalzaletasunaren alde:


aras **ALBISUA** S.L. **laibi** ELECTRICIDAD

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692